

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA

1.- ESPARRU OROKORRA: JARDUERA ILDOAREN DEFINIZIOA

JUSTIFIKAZIOA

Komunikazio-gaitasunaren garapen-mailak komunikazio-hizkuntzetan, bai ahoz eta bai idatziz, eragin zuzena du emaitzetan. Hain zuzen ere, irakurketa eta idazketa oinarrizko baliabideak dira curriculumean lantzen diren gaitasunak lortzeko prozesuan, eta eskola-emaitza arrakastatsuak izaten ez ezik, ondo moldatzen eta gizartean bizitzen ere laguntzen dute.

Bestalde, Plana garatu aurreko fasean, galdetutako ikastetxeen ehuneko handi batek nabarmendu du irakurketa- eta idazketa-prozesuak hobetu beharra.

Hamaika Esku programan parte hartzen duten ikastetxe gehienek zenbait aldagai dituzte komunean, hala nola, egoera berrietara egokitzeko zailtasunak, planteamendu metodologikoko gabeziak eta biltzen duten aniztasunaren konplexutasuna. Kezka gehien sortzen duen ondorioetako bat eskolako emaitzetan islatzen da. Zalantzarik gabe, eskolako hizkuntza-gaitasuna hobetzeak eskola-emaitzak ere hobetzen lagunduko du.

Hala eta guztiz ere, hizkuntzak menperatzeak ez du erabat eta guztiz baldintzatzen gaitasunen lorpena. Aitortu behar da, hizkuntzak menperatuz gero, errazago parte hartzen dela bestelako gaitasunak garatzeko eskola-zereginetan; baina, aldi berean, eskolako zereginak ezinbestekoak dira hizkuntza-gaitasuna garatzeko. Beraz, elkarren arteko mendekotasuneko lotura dago.

Programaren HELBURUAK jarduera-ildo honetan:

- a) Ikasleengan, eskolan eta gizartean parte hartzeko behar duten hizkuntza-gaitasun maila garatzen laguntzea.
- b) Irakasleen artean gogoeta eta berrikuntza metodologikoa sustatzea, eskolako hizkuntzen ikaskuntza / irakaskuntza prozesuen inguruan.

LORPEN ADIERAZLEAK

A) Jarduera-ildo hori landu duten eta horren jarraipena egin duten ikastetxeen %80an islatzen da eskola-emaitzetan eta kanpo-ebaluazioen emaitzetan hobekuntza egon dela (ikasleen %70engan), batez ere hizkuntzak pisu gehien duen arloetan.

B) Jarduera-ildo hau landu eta bere jarraipena egin duten ikastetxeetako irakasleek adierazten dute ikaskuntza hobetzeko prozedura metodologiko egokienei buruzko gogoeta egin dutela. Ikastetxe horietako %80k emaitzak hobetzeko berrikuntzak egin ditu.

JARDUERA ILDO HAU DEFINITZEN DUTEN ALDERDIAK

A/ Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren azpialderdiak

1. AHOZKO ULERMENA, funtsean pertsona arteko harremanetarako eta hedabideetako hizkuntzaren erabilerei loturik.
2. IDATZIZKO ULERMENA, ezagutzaren gizartean ezinbestekoak diren informazioa tratatzeko eta aukeratzeko gaitasunak biltzen dituena.
3. AHOZKO ADIERAZPENA, hainbat komunikazio-egoeratarara egokitutako ahozko diskurtsoak ekoizteko gaitasunak eskuratzeko.
4. IDATZIZKO ADIERAZPENA, hainbat komunikazio-egoeratarara egokitutako orotariko testuak ekoizteko, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna dituztenak alderdi formaletan.
5. AHOZKO INTERAKZIOA, batez ere komunikatzeko eraginkortasunari loturik dago, hau da, gizarte- eta komunikazio-arauen esanahia eta errespetua modu banatuan negoziatzeari.

B) Ikastetxeari dagozkionak:

ikastetxearen eta eskola-komunitatearen zeregin nagusia **baldintza egokiak** eta ikasle guztien partaidetzari bide emango dion **giroa sortzea** ezinbesteko baldintza izango da hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lortzeko, bereziki gaitasun eleaniztuna eta kulturarteko trebetasunak

EDUKI MULTZOA

Dekretuan sei eduki-multzo aipatzen dira. Horietatik honako bi multzo hauen garrantzi nagusia nabarmendu behar da:

1.MULTZO: Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta jardutea.

2.MULTZOA: Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

Beste lau multzoak, kontuan izan behar badira ere, bi horien zerbitzura daude.

LANDU BEHARREKO ALDERDI GAKOAK. AGER DAITEZKEEN LORPEN MAILEN GRADAZIOA ETA / EDO LORPENEN ADIERAZLEAK.

A/ Ikasleei dagozkienak:

AZPIALDERDIA	ERRENDIMENDU-ESTANDARRAK
1. arloa: AHOZKOAREN ULERMENA	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko testuen esanahi orokorra IDENTIFIKATZEA. - Ahozko testuen helburua ANTZEMATEA. - Ahozko testuetan proposatutako helburuetarako informazio egokiak HAUTATZEA - Ahozko testuen edukia modu kritikoan INTERPRETATZEA - Orotariko ahozko testuak ulertzen laguntzeko estrategiak ERABILTZEA.
2. arloa: AHOZKO ADIERAZPENA	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-egoeraren ezaugarriak KONTUAN HARTZEA. - Ekoizpen-prozesua PLANIFIKATZEA. - Modu egoki eta zuzenean ADIERAZTEA . - Kontrol eta egokitzapen estrategiak ERABILTZEA.
3. arloa: AHOZKO INTERAKZIOA	<ul style="list-style-type: none"> - Modu aktibo eta egokian parte hartzea komunikazio-trukeetan - Gizarte- eta komunikazio-arauak errespetatzea. - KOMUNIKAZIOA mantentzeko eta horren eraginkortasuna handitzeko estrategiak erabiltzea.
4. arloa: IDATZIZKOAREN ULERMENA	<ul style="list-style-type: none"> - Idatzizko testuen esanahi orokorra identifikatzea. - Idatzizko testuen helburua ezagutzea. - IDATZIZKO TESTUETAN proposatutako helburuetarako informazio egokiak hautatzea - Modu kritikoan interpretatzea idatzizko testuen edukia - OROTARIKO IDATZIZKO TESTUAK ulertzen laguntzeko estrategiak erabiltzea.
5. arloa: IDATZIZKO ADIERAZPENA	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-egoeraren ezaugarriak KONTUAN HARTZEA. - Ekoizpen-prozesua PLANIFIKATZEA. - MODU egoki, koherente, ondo kohesionatu eta zuzenean ADIERAZTEA. - Kontrol eta egokitzapen estrategiak ERABILTZEA.

Lan-ildo honen aurrerapen-mailak jasotzeko sei tresna mota aurkezten dira (gaitasunaren alderdiak banan-banan aurkezten dira):

- Jarduera-ildo hau definitzen duten alderdien lorpen adierazleak / errendimendu-estandarrak.
- Adierazleei aplikatzeko berriazko doikuntza-aldagaiak eta orokorrak.
- Gaitasun horren eskuratze-maila orientatiboak, diagnostiko-ebaluazioetan antolatu diren modura (Ikusi maila bakoitzaren deskribapen generikoa).

B/ Ikastetxeari dagozkionak:

Azkenik, taula honek, hizkuntza-komunikazioaren gaitasuna ondoen garatzeko baldintza egokiak sortzeko, ikastetxeak eginiko ahaleginaren hainbat maila eskaini nahi ditu.

metodologia eta antolaketari buruzko proposamenak komunikazio-gaitasuna sustatzeko: gelako ataza,...	<ul style="list-style-type: none">• Hizkuntza-ibilbideak diseinatzea, ikasleen ezaugarri bereziak kontuan hartuz.• Baliabideak eta laguntzak antolatzea, ikaslearen komunikazio-beharrak kontuan hartuz.• Kanpoko baliabideak identifikatu, planifikatu eta koordinatzea (familiak, borondatezko langileak, erakundeak) eta eguneroko jardunari gehitu (besoetako egitea eta laguntzea).• Eguneroko lana antolatzean, berdinen arteko elkarrenginerako aukerak baliatu , komunikazioa hobetzeko.• Ikasgelako metodologia egokiak ezartzea, komunikazio-gaitasuna eskuratzeko.• Ikastetxeko lehentasunak lortzeko, denen konpromisoa duten akordioak ezartzea, kasu honetan curriculumeko hizkuntzetako hizkuntza-komunikazioari dagozkionak.• Gai honen inguruko irakasleen prestakuntza planifikatu eta aurrera eramatea.
HIZKUNTZA ANITZEKO GAITASUNA ETA ANIZTASUN KULTURALA	<ul style="list-style-type: none">- Kulturei, hizkuntzei eta hiztunei buruzko aurreiritzien karga etnozentrikoaz JABETZEA.- Ikasleen aniztasun kulturala positiboki erabiltzeko moduei buruz HAUSNARTZEA.- Kultura arteko jarrera eta gaitasunak SUSTATZEA- Ikasleek eta beren familien hizkuntza-aniztasuna BULTZATZEA, komunikazioa eta ikaskuntza bultzatu eta aberasten dituen faktore gisa.

Horrela, dokumentuaren erabiltzaileen ikuspegi eta behar desberdinetara egokitu nahi dugu.

Dena den, dokumentuaren gainerako alderdiekin gertatzen den bezala, atal hau pixkanaka doituko da antzematen diren erabilera-beharretara.

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA: AHOZKO ETA IDATZIZKO ULERMENA ETA ADIERAZPENA

ALDERDIAK	ADIERAZLEAK/ESTANDARRAK	TESTU ETA TESTUINGURUAK	LORPEN MAILA ORIENTAGARRIAK
------------------	--------------------------------	--------------------------------	------------------------------------

<p>AHOZKOAREN ULERMENA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Testuaren esanahi orokorra identifikatzen du. • Testuaren informazio-edukia laburtzen du. • ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu. • Testuko ideien arteko lotura antzematen du. • Zikloko berezko hiztegia ezagutzen du. • Testuaren helburua identifikatzen du. • Testuaren igorlea identifikatzen du. • Igorlearen asmoa identifikatzen du. • Erabilitako hizkuntza-aldaera ezagutzen du. • Testu-generoa ezagutzen du. • Testuko informazio garrantzitsua bereizten du. • Berariazko informazioa ezagutzen eta identifikatzen du. • Jasotako informazioa proposaturiko helbururako erabiltzen du. • Testuaren edukia interpretatzen du, norberaren ezagutzekiko. • Hizkuntzaz kanpoko elementuen esanahia interpretatzen du. • Testuaren edukiari buruzko inferentziak egiten ditu. • Adierazpen baztertzailak ezagutzen ditu. • Entzute aktiboa gauzatzen du. • testuaren edukia aurreikusten du. • Testuaren edukiari buruzko inferentziak egiten ditu. • Beste hizkuntza batzuetako ezagutzak baliatzen ditu, hobeto ulertzeko. 	<p>Mailak ezartzeko aldagai orokorrak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Atazaren konplexutasuna 2. Atazaren lorpen-maila 3. Aurretiazko ezagutzak (edukia) eta esperientzia. 4. Autonomia-maila 5. Azaldutako inferentzia-gaitasuna <p>Berariazko aldagaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu-generoaren konplexutasuna • Erabilera-eremuaren konplexutasuna • Testuaren kalitatea 	<p>m.1.1 OINARRIZKOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu laburrak entzun ondoren, berariazko informazioa bereizten du. • Batzuetan , testuko ideiak lotzen ditu eta edukiari buruzko inferentziak egiten ditu. • Batzuetan, oso ohiko testu baten generoa identifikatzen du. <p>m.1.2 ERDIKOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuaren esanahi orokorra bereizten du. • Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu. • Era askotako testuen edukiari buruzko inferentziak egiten ditu. • Batzuetan, testuaren generoa bereizten du. <p>n.1.3 AURRERATUA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazio garrantzitsua bereizten du. • Era askotako testuak entzun ondoren, informazioa laburtzen du. • Hainbat eremutako ahozko testuen hiztegia eta generoa ezagutzen ditu.
-----------------------------------	---	---	---

**AHOZKO
ADIERAZ
PENA**

- Kontuan hartzen ditu hartzailearen ezaugarriak
- Kontuan hartzen du testuaren helburua.
- Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.
- Egoera bakoitzari dagokion erregistroa hautatzen du.
- Testu-erregistro egokia hautatzen du.
- Informazioa hainbat euskarri motatan bilatzen du.
- Lortu nahi den helbururako informazio garrantzitsua hautatzen du.
- Berbaldia egituratzen du.
- Argi eta hitz-jario egokiz hitz egiten du.
- Testu-generoaren berezko ezaugarriak errespetatzen ditu.
- Adierazpen diskriminatzaileak saihesten ditu.
- Ekoizpena arautzeko estrategiak erabiltzen ditu.
- Autoebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu.
- Ekoizpen-prozesuan autonomia agertzen du.

Mailak ezartzeko aldagai orokorrak:

1. Atazaren konplexutasuna
2. Atazaren betetze-maila
3. Atazaren egokitasuna, koherentzia eta kohesioa
4. Aurretiazko ezagutzak (edukiak) eta esperientzia.
5. Autonomia-maila
6. Hizkuntzaz kanpoko baliabideen erabilera
7. Hizkuntza-zuentasuna

Berariazko aldagaiak:

- Testu-generoaren konplexutasuna
- Erabilera-esparruaren konplexutasuna

n.2.1 HASIERAKOA

- Ez da proposaturiko atazara doitzen edo nekez egiten du. Laguntza behar du.
- gai ez dago behar bezala garatuta.
- Ez ditu erabiltzen oinarritzko kortesia-formulak. Diskurtsoa ez dago ordenatuta. Zentzu globala galdu egiten da.
- Informazioa ez da koherentea, eta erreplikakorra da.
- Diskurtsoa ulergaitza da, lokailuak falta direlako edo esaldi batzuk osatu gabe geratzen direlako.
- Hiztegi mugatua. Errepikapen ugari.
- Gramatika-egitura okerrak erabiltzen ditu.
- Ahoskerak ulergarritasuna oztopatzen du.
- Doinuera ez da naturala, beti berdina da.
- Diskurtso etena, arintasunik gabea.
- Adierazpenik gabeko jarrera edo jarrera desegokia (zurruntasun handiegia edo keinu gehiegi).

n.2.2 ERTAINA

- Atazari egokitzen zaio, laguntzaren batekin, baina generoari ez erabat.
- Gaia behar adina garatzen du.
- Oro har, oinarritzko kortesia-formulak erabiltzen ditu.
- Ideietan nolabaiteko ordena dago.
- Informazioak aurrera egiten du, nahiz eta erreplikapen bat edo inkoherentziaren bat egon.
- Lokailu simple batzuk erabiltzen ditu.

		<ul style="list-style-type: none"> • Hiztegi egokia • Zenbait akats morfologiko eta sintaktiko ager daitezke. • Ulermena oztopatzen duten zenbait akats. • Doinuera naturala. Batzuetan doinua aldatzen du. • Erritmoa arina da, nahiz eta batzuetan zalantzak eta ezbaiak agertu. • Oro har, keinuak egokiak dira, nahiz eta batzuetan keinu gehiegi edo gutxiegi izan. • n.2.3 AURRERATUA • Ekoitzitako diskurtsoak eskatutako ataza betetzen du eta aurreikusitako generoari autonomiaz egokitzen zaio. • gaia behar bezala garatzen du. Garrantzizko daturen bat ematen du. • Oinarrizko kortesia-formulak erabiltzen ditu. • Ideiek arrazoizko hurrenkera azaltzen dute. • Informazioak behar bezala egiten du aurrera. • Oro har, esaldiak osatzen eta lotzen ditu. • Gaiari egokitzen zaion hiztegi egoki eta ugaria, beste hizkuntza bateko hiztegia erabili beharrik gabe. • Ez dago ia gramatika-akatsik. • Ahoskera argia eta zuzena. • Doinuera naturala, inflexioekin. • Etenik gabeko erritmo arina mantentzen du. • Keinuak diskurtsoari egokitzen zaizkio.
--	--	--

<p>AHOZKO ELKARRE-RAGINA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bere kabuz parte hartzen du eta entzute aktiboa mantentzen du. • Kontuan hartzen ditu komunikazio-egoeraren ezaugarriak. • Informazioa eta azalpenak modu ordenatu eta egokian ekartzen ditu. • Hizkuntza-erabilerak errespetatzen ditu. • Hizkuntza-zuzentasunaren arauak errespetatzen ditu. • Gainerakoen esku-hartzeak errespetatzen ditu. • Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu. • Kortesia-arauak kontuan hartzen ditu. • Adierazpen diskriminatzailerak saihesten ditu. 	<p>Mailak ezartzeko aldagai orokorrak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Atazaren konplexutasuna 2. Atazaren betetze-maila 3. Atazaren egokitasuna, koherentzia eta kohesioa 4. Aurretiazko ezagutzak (edukiak) eta esperientzia 5. Autonomia maila 6. hizkuntzaz kanpoko baliabideen erabilera 7. Hizkuntza-zuzentasuna <p>Berariazko aldagaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu-generoaren konplexutasuna • Erabilera-esparruaren konplexutasuna. 	<p>n.3.1 HASIERAKOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte hartze eskasa, laguntzarik gabe ez du aurrea hartzen. • Ez du hitz egiteko txanda errespetatzen eta eten egiten du. • Ez du haria jarraitzen, eta ez ditu elkarrizketakideak kontuan hartzen. <p>n.3.2 ERTAINA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hitz egiten du, baina batzuetan laguntza behar izaten du elkarrizketa hasteko edo hitza hartzeko. • Oro har, hitz egiteko txanda errespetatzen du, nahiz eta batzuetan ez dagokionean esku hartu. • Galderei erantzuten die. • Oro har, diskurtso argi eta ulergarria du. • Batzuetan ez du kontuan hartzen elkarrizketakideak dioena. • <p>n.3.3 AURRERATUA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketa hasten du, eta hitza hartzen du. • Hitz egiteko txanda errespetatzen du, eta galderei erantzuten die. • Kontuan hartzen du elkarrizketakideak dioena, eta bere diskurtsoa jarraitzeko gai da. • Argi hitz egiten du, eta mezua ulergarria da.
-------------------------------------	--	---	---

<p>IDATZIZ KOAREN ULERME NA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Testuaren esanahi orokorra identifikatzen du. • Testuaren informazio-edukia laburtzen du. • Lehen eta bigaren mailako ideiak bereizten ditu. • Testuko ideien arteko lotura bereizten du. • Zikloko berezko hiztegia bereizten du. • Testuaren helburua identifikatzen du. • Testuaren igorlea identifikatzen du. • Igorlearen asmoa identifikatzen du. • Erabilitako hizkuntza-aldaera ezagutzen du. • testu-generoa ezagutzen du. • Irakurketaren helburua identifikatzen du. • Testuko informazio garrantzitsua bereizten du. • berariazko informazioa ezagutu eta identifikatzen du. • Jasotako informazioa proposaturiko helbururako erabiltzen du. • Testuaren edukia interpretatzen du, dituen ezagutzen arabera. • Hizkuntzaz kanpoko elementuen esanahia interpretatzen du. • Testuaren edukiari buruzko inferentziak egiten ditu. • Adierazpen diskriminatzaileak bereizten ditu. • Testuaren edukia aurreikusten du. • Ulermen-arazoak hautematen ditu. • Beste hizkuntz batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu, ulermenaren mesederako. 	<p>Mailak ezartzeko aldagai orokorrak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Atazaren konplexutasuna 2. Atazaren betetze-maila 3. Atazaren egokitasuna, koherentzia eta kohesioa 4. Aurretiazko ezagutzak (edukiak) eta esperientzia 5. Autonomia maila 6. Agertutako inferentzia-gaitasuna. <p>Berariazko aldagaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu-generoaren konplexutasuna • Erabilera-esparruaren konplexutasuna • Testuaren irakurgarritasuna 	<p>n.4.1 HASIERAKOA</p> <p>Testu idatzietako berariazko informazioa identifikatzen du.</p> <p>Ohiko testuen esanahi orokorra identifikatzen du.</p> <p>batzuetan, testuen informazio-edukia laburtzen du.</p> <p>n.4.2 ERTAINA</p> <p>Orotariko testuetako informazio garrantzitsua hautatzen du.</p> <p>Testuaren igorlea ezagutzen du eta edukiari buruzko inferentziak egiten ditu.</p> <p>Bere eskola-mailako berezko hiztegia ezagutzen du.</p> <p>n.4.3 AURRERATUA</p> <p>Irakurketaren helburua identifikatzen du.</p> <p>Testu motzetako ideien arteko lotura antzematen du.</p> <p>Zuzeneko eta zeharkako inferentziak egiten ditu.</p> <p>Testu baten edukia laburtzen du.</p>
--	---	--	---

<p>IDATZIZKO ADIERAZPENA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Testuaren helburua kontuan hartzen du, haren ekoizpenerako. • Testua hartzaileari egokitzen dio. • Hizkuntza-aldiera egokia aukeratzen du. • Egoerari egokitzen zaion erregistroa erabiltzen du. • Testu-genero egokia hautatzen du. • Hainbat informazio-iturritan bilatzen du. • Lortu nahi den helbururako informazio garrantzitsua hautatzen du. • Testuaren edukia eta forma planifikatu eta egituratzen du. • Egoki eta zuzen aurkezten du testua. • Askotariko hizkuntza baliabideak erabiltzen ditu. • Adierazpen diskriminatzaileak saihesten ditu. • Ekoizpena erregulatzeko estrategiak erabiltzen ditu. • Autoebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu. • Autonomia agertzen du testuaren ekoizpen- eta berrikuspen-prozesuan. 	<p>Mailak ezartzeko aldagai orokorrak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Atazaren konplexutasuna 2. Atazaren betetze-maila 3. Atazaren egokitasuna, koherentzia eta kohesioa 4. Aurretiazko ezagutzak (edukiak) eta esperientzia 5. Autonomia-maila 6. Hizkuntza-zuzentasuna <p>Berariazko aldagaiak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 7. Testu-generoaren konplexutasuna 8. Erabilera-esparruaren konplexutasuna 	<p>n.5.1 HASIERAKOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zailtasunak agertzen ditu proposaturiko helburua lortzeko. • batzuetan, gai-zerrendak idazten ditu, baina ez ditu ideiak garatzen. • Edukiak errepikatzen ditu eta ez du testuaren egitura errespetatzen. • Hiztegi mugatua, esaldi osatu gabeak eta akastunak erabiltzen ditu. • <p>n.5.2 ERTAINA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu bat idazteko informazioa eta erregistroa aukeratzen ditu. • Eskatutako egoeretako bat bakarrik aipatzen du, eta ez du erabat garatzen. • Batzuetan akatsak egiten ditu , baina horiek ez dute komunikazioa oztopatzen. <p>n.5.3 AURRERATUA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testu egokiak eta zuzenak idazten ditu, plantatutako helburua lortzeko. • Eskatutako gaia eta egitura planteatu eta garatzen ditu. • Ortografia-, gramatika- eta sintaxi-arauak jarraitzen ditu. • Hiztegi egokia eta errepikapenik gabea erabiltzen du.
------------------------------	--	---	--

	ADIERAZLEAK/ estandarrak	MAILAK
IKASGELAKO KOMUNIKAZIO GAITASUN PRAKTIKOA SUSTATZEKO METODOLOGIA ETA ANTOLAKETA PROPOSAMENAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ikaslearen ezaugarrien arabera diseinatutako hizkuntza-ibilbideak daude. • Irakaskuntza-hizkuntza bakoitzean ikasle bakoitzak duen gaitasun-aurrerapenaren jarraipen-diseinu argi eta bizkorra dute. • Giza-baliabideak eta laguntzak ikaslearen komunikazio-beharren arabera antolatuta daude. • Kanpoko hainbat baliabideren (familia, boluntariora, erakundeak) koordinazio- eta jarduera-plana dago ikastetxean eta ikasgelan: besoetako egiteko kanpainak, lagun-egiteak, eta bestelako elkarreraginak. • Komunikazioa hobetzeko, berdinen artean elkarreragiteko aukerak baliatzen dira sistematikoki. • Identifikatu eta onartu dira komunikazio-gaitasuna eskuratzeko egokiak diren ikasgelako metodologiak. • Ikastetxeko irakasleak behar adinako prestakuntza eta sentsibilizazioa dute komunikazio-gabeziak antzeman eta haiei aurre egiteko. • Denek hartutako konpromisoak ezarri dira, curriculumeko hizkuntzei dagokienez, hizkuntza-komunikazioaren lehentasunak lortzeko. 	<p>n.6.1 HASIERAKOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kezkak daude hizkuntzen eskuratzeko- eta garatzeko-prozesuetako aldagaien zein metodologia egokiaren inguruan; noizbehinka prestakuntza egin arren, ez da hausnarketa sakon bat egin, eta ez dira funtsezko alderdiak adostu. <p>n.6.2 ERTAINA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzen eskuratzeko eta garapenaren inguruko zenbait alderdiri buruzko akordio partzialak daude; metodologia egoki batzuk erabiltzen dira, eta baliabide ofizialak antolatuta daude: hizkuntza-laguntzako irakasleak, babesak,... Kanpoko baliabideak lortzen saiatzen dira, baina ez sistematikoki. <p>n.6.3 AURRERATUA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxe-mailako akordioak daude alderdi nagusienei buruz: irakasle guztien konpromisoa, metodologiak, baliabideen kudeaketa. Irakasleak prestatuta daude. Kanpoko eragileen parte-hartzea antolatuta dago. Ikasleen hizkuntza-ibilbideak diseinatuta daude eta banakako jarraipenaren protokoloa eginda.
HIZKUNTZA ANITZEKO GAITASUNA ETA KULTURA-ANIZTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Benetako hausnarketa egin da hezkuntza-komunitatean, eta, ondorioz, hainbat jardura sortu dira: prestakuntza, berriztatzea, partaidetza handiagoa etab. • Eskolako eta eskolaz kanpoko jardura zein prestakuntza-planetan agerian geratzen da ikasleen kultura- eta hizkuntza-aniztasuna komunikazioa eta ikaskuntzaren mesederako elementuak direla. • Ez da jarduten gutxiengo etnikoko ikasleen aukera bakarra gehiengoaren hizkuntza eta kulturarekin 	<p>n.7.1 HASIERAKOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez dago benetako hausnarketarik ikastetxeko ikasleen kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren kudeaketari buruz. • Ikasleen hizkuntza-aniztasuna konpondu beharreko arazotzat hartzen da. • Ez dago kultura, hizkuntza eta hiztunei buruzko ikuspuntu etnozentrikoak agerian uzten duten aurreiritzi-zamaren kontzientzia argirik. • Ez dira kontuan hartzen ikasleen ezaugarriak ikaskuntza /

	<p>berdintzea balitz bezala. Kontua ez da beti “ haiek integra daitezela”.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek identitate orekatu bat garatzea ahalbidetzen dieten kulturarteko trebetasun eta jarrerak dituzte. • Kultura-eta hizkuntza-aniztasunerako gaitasunak aniztasuna kudeatzeko beharrezkoak diren elkarreragina eta bitartekaritza errazten dute. 	<p>irakaskuntza prozesua planifikatzean : familiaren hizkuntza, aurreko eskolatzeetako hizkuntzak,...eta egungo hizkuntzekin erlazionatzeko modua bilatzea.</p> <p>n.7.2 ERTAINA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Noizean behin eta ez oso modu antolatuan hausnartu da kultura-eta hizkuntza-aniztasunaren kudeaketari buruz , eta kudeatzeko moduari buruzko zenbait akordio lortu dituzte. • Ikasleen aniztasuna kontuan hartzen da, baina oraindik ez dago argi behar bezala kudeatzeko modua. <p>n.7.3 AURRERATUA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Klaustroan eta hezkuntza-komunitatean hausnarketa egin da barne-aniztasuna behar bezala kudeatzeko moduei buruz.
--	---	---

2.-IKASTETXEARI LAGUNTZEKO TRESNAK

2.1.- METODOLOGIA PROPOSAMENAK

Diagnostikoaren ebaluazioko emaitzak zein ikastetxeetako curriculumaren ebaluazioko emaitzek argi adierazten dute eskola-hizkuntzako gabeziak direla eskola-emaitzetako eragile nagusienetako bat, bereziki *Hamaika Esku* programako ikastetxeetan.

Beti ikaslearen aurretiko trebetasun eta ezagutzetatik abiatu behar dugula adierazten badugu, zer esanik ez, aipatutako ikastetxeetako ikasleen kasuan, premia bereziak daudenean. Askotan, ikastetxera iritsi berriak diren ikasleak eta eskolako hizkuntza ezagutzen ez dutenak izaten dira; beste batzuetan, hainbat arrazoi direla medio, eskolako hizkuntzan hutsune handiak dakartzatenak.

Sarri askotan argudio modura erabiltzen da ez dela posible curriculumeko gaitasun-aukera zabala garatzea, ez bada eskolatze-hizkuntzaren behar bezalako maila eskuratu. Hori horrela balitz, gure ikasleriaren zati bat aurretiaz porrotera kondenatuta legoke. Zorionez, ez da horrela. Metodologiak baliabide anitz eskaintzen ditu **bi helburu nagusiak** aldi berean lantzea optimizatzeko:

- **Eskolako hizkuntzaren behar adinako gaitasuna eskuratzea, ikastetxean zein gainerako harremanetan ikaslearen partaidetza aktiboa ahalbidetuko duena.**
- **Eskolako hizkuntzaren behar adinako gaitasuna eskuratzea, curriculumak jasotzen dituen gaitasun guztien garapena erraztuko duena.**

Bi helburu horiek batzea ez da lan erraza, baina lor daiteke, **ikuspuntu metodologiko** egokiak erabiliz. Honako ardatz hauek dituzten ikuspuntuak:

- Eginez ikastea. Horrek esan nahi du ikasgelako proposamen guztietan egongo dela hizkuntza edo hizkuntzekin lan egiteko eta hura edo haiek hobetzeko asmo bikoitza. Kontrakoak, ikasgelako jardueretan parte hartzeko hizkuntza menderatu arte itxarroteak, ikasleriaren zati handi bat porrotera eramango luke. Ikuspuntu honek atazaka edo proiektukako lanetara bideratzen du.
- Ikasgelako barne-energiak baliatzea. Hemen berdinen arteko edozein ikaskuntza-planteamendu sar daiteke: lankidetzazko lana, tutorizazioak, etab. Planteamendu horietako askotan nahi izatekoa da, batzuetan beharrezkoa, familien eta boluntarioen arteko kanpoko laguntza.
- Teknologian oinarrituriko benetako
- Teknologian oinarritutako benetako aukera didaktikoak aprobetxatzea. Izaera motibatzailea dutelako, emaitzak berehalakoak direlako, partekatzeko errazak direlako, ...
- Atazak diseinatu eta antolatzea ikasle guztiek parte hartu ahal izateko moduan. Atazetan parte-hartze horrek lagunduko du eskolako hizkuntzaren eta curriculumeko beste gaitasunen eskurapenaren aldibereko aurrerapenean (hizkuntza+curriculum).

IRIZPIDEAK

- Hizkuntzaren erabilera komunikatzailea. hau da, hizkuntza **komunikazio-tresnatzat** hartu behar da, ikasketa-xedetzat baino.
- Ikasleen **beharretatik eta komunikazio-interesetatik** abiatzea, **haien interesa pizten duten eta aurretiazko ezagutzak aktibatzen dituzten atazak** proposatuz, **elkarreraginean** jardutera bultzatuz, eta azken erabakira iristeko komunikatu edota zerbait proposatu behar duten atazak: azken produktua eta lanaren gizarte-proiektzioa.
- **Estrategia inklusiboak eta kooperatiboak** sustatzea, non ikasleek beren ikaskideekin lankidetzan jardun behar duten, jarduera gauzatzeko funtsezko alderdi gisa.
- **Komunikazio-dinamikak** proposatzea: egoerak ebaztea, dokumentu errealak ulertu eta ekoiztea etab. Gramatika, hiztegia, ahoskera, ortografia,... komunikazio-helburu horien zerbitzura daude.
- **Hizkuntzari komunikazio-erabilera ematea: ahalik eta lagin errealekin** lan egitea, eguneroko egoera errealak erreproduzitzen, euskarri, egoera eta helburu komunikatiboen bidez.
- Erabiltzen den curriculum-materiala ulergarria bihurtzea: testuliburuak, arloko berezko testuak edo erabilitako beste edozein material.
- **Hizkuntzen trataera integratua.** Hau da:
 - Trataera integratua metodologia-estrategia gisa, zeinak arreta berezia ematen dion ikasketak hainbat hizkuntzatan emateari, komunikatzeko gaitasun eleaniztun bat lortzeko asmoz.
 - Hizkuntza bakoitzak berezkoa duena lantzea, eta kidetasunak guztien artean partekatzea, betiere ikasleak egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntza egoki eta modu eraginkorrean erabil dezan.
 - Eskolako hizkuntzari buruz hausnartzea:

1. Hizkuntzen trataera integrala. Hau da:

- Abiapuntu hartuta hizkuntzak edukiak transmititzen dituela eta eduki horiek hizkuntza-tresna behar dutela, irakasle guztiek, hizkuntzakoak zein hizkuntzaz kanpoko arlo eta ikasgaietakoak komunikazio-gaitasunaren garapenean batera lan egitean datza.
- Horretarako lagungarriak dira garatzen diren arlo edo ikasgai bakoitzeko jakintzen adierazpide bereziak eta irakats-hizkuntza bakoitzeko egoera eta esperientzia guztiak.
- Gaitasunaren **bost dimentsioetan** (entzumena, mintzamena, interakzioa, irakurmena eta idazmena) aurrera egitea, **testu mota** guztiak eta **genero** ugari lantzen dituzten ikasgelako proposamenen bidez..

Funtsezkoa da, aipatzen genuen bezala, ikasle guztien **implikazio aktiboa** bilatzea. Implikazio hori ezinbestekoa da beste herrialde batzuetatik datozen ikasleen kasuan eta,

eskolako ez bezalako hizkuntza eta kulturen erreferentzia dutenen kasuan. Horretarako beharrezkoa da:

- Irakaslearen diskurtsoan oinarritutako irakaskuntzaren zati handi bat ikasleen arteko eraginari transferitzea. Badira ondo antolatu ahal izateko zenbait estrategia: proiektu eta atazakako lana, lan kooperatiboa, besoetakoak egitea, talde interaktiboak, solasaldiak...
- **Hizkuntza-zama handiegia duten testuak eskuragarriago bihurtzeko** estrategiak erabiltzea, irudi, adierazgailu eta prozesuak errazten dituzten adibideen bidez (adib., SIOP eredua).
- **Ikasketak behar bezala sekuentziatzea**, ikasleen erritmo, estilo, abiapuntu eta trebetasunen arabera.

Hizkuntza pentsaeraren egituratzailatzat hartzen bada, oso garrantzitsua da lehen hizkuntza ondo finkatzea, gehienetan, familiarengandik jasotakoa. Horregatik, gurea ez bezalako hizkuntza duten ikasle hasi berrien kasuan, ondo hausnartu beharko litzateke beren eskolatze-hizkuntzak edota familiakoak lantzeko aukera (gaur egun eskatu ahal da hizkuntza horietako batzuen presentzia eskolan, gutxienez, arabiera eta errumaniera). Dena den, ikuspuntu afektibo-emozional batetik, desiragarria litzateke ikasleek beren jatorrizko hizkuntza eskuragarri izatea.

AUKERATUTAKO FUNTSEZKO LAN ALDERDI—edo azpidimentsio—BAKOITZAREN INGURUKO ORIENTABIDE METORDOLOGIKOAK

AHOZKOAREN ULERMENA

- Komunikazio-egoera errealak erabiltzea, erregistro egokiak, hitzezko eta ez-hitzezko,... elementuak bilatuz. Ohikoenak, zalantzarik gabe, ikasgelako egoerak dira, behar bezala kudeatuz gero, baliagarrienak direnak.
- Ikasgelan erabiltzen diren ahozko iturriak aztertzea (irakasleen azalpenak ere barne direlarik, ikus-entzunezko bitartekoak,...) eta protokolo bat ezartzea (SIOP eredu, ...)
- Jarduerak unitate didaktikoen barruan, entzutearen helburua bermatzeko.
- Ahozko ulermeneko jarduerak berariazkoak eta kalkulatuak izan behar dute, prozesuaren estrategia desberdinak lantzeko eta ikasleentzako alderdirik zailenetan eragiteko prestatuak.
- Ikasleei askotariko *input* aberatsa eskaintzea.
- Ariketa ugari egin behar dira eta kontuan hartu behar dira ulermen-prozesuak: identifikatzea/ gogoratzea/ bereiztea/ informazioa berreskuratu, interpretatu, balioetsi, antolatu eta estrapolatzea/ transkodetzea.
- Errutinen bidezko kontzientzia fonologikoa, PDI...
- Ereduak sortzea, egitura eraikitzea ... ahozkotasanaren ikaskuntza “formala” helburutzat hartuta.
- Aldi berean ahozko adierazpen-jarduera sinpleak proposatzea: entzunaldiak hainbat euskarri- eta testu-motatan, azalpen laburrak, ikasleen grabazioak,...
- Txikienez ulermenaren, arretaren eta buruan gordetzearen alderdi globalenak landu behar dituzte (gaiak eta oinarriko ideiak), horiek ezinbestekoak baitira haien garapen kognitiborako. Helduagoek, aldiz, beste mikrogaitasun batzuk landu ditzakete, hala nola, testuaren forma eta xehetasunak ulertzea edo egoeratik datuak ondorioztatzea.
- Irakasteko/ikasteko estrategiak: entzun aurretik, entzun bitartean eta ondoren.
- Orotariko testu-tipologia, erregistro eta euskarri desberdinak: irakasleak, ikasleak, CDa, bideoa, irratia, telebista,...
- Entzun ondoren jarduera ugari egitea (margotu, kontatu, bete, laburbildu, ...)

AHOZKO ADIERAZPENA

- Komunikazio-egoera errealak erabiltzea, erregistro egokiak, hitzezko eta ez-hitzezko,... elementuak bilatuz. Ohikoenak, zalantzarik gabe, ikasgelako egoerak dira, behar bezala kudeatuz gero, baliagarrienak direnak.
- Ahozko aurkezpenak arlo guztietan.
- Ereduak sortzea, egitura eraikitzea ... ahozkotasanaren ikaskuntza “formala” helburutzat hartuta.
- **Diskurtsoaz aurreko plangintza.**
- **Prozesuaren koebaluazioko ebaluazio-errubrikak.**
- **Aurkezpenen grabazioak ebaluazioa eta autoebaluazioa egin ahal izateko.**

IDATZIZKOAREN ULERMENA

- Ezer baino lehen, erabili ohi diren curriculum-materialen ulermena ziurtatzea.
- Haur Hezkuntzatik kanpaina sistematizatuak proposatzea (adib. “bularretik mintzora”)
- Irakurketa-estrategiak garatzen laguntzea: **lehenago** (helburua, aurretiazko ezagutzak,...), bitartean (arreta gidatzea, ulermena egiaztatzea, inferentziak egitea,...) eta ondoren (interpretazioak egitea, ondorioak partekatzea,...).
- Xede-ikasleentzat jarduera egokiak dituzten testu eta **material didaktiko** motibatzaileak erabiltzea. Zehaztu behar da zer testu eta zertarako.

- Ikasleei beren ulermen-mailara egokitzen diren irakurketak proposatzea (hurbileko garapen eremua).
- **Genero eta formatu ugari** proposatzea: testu jarraituak, etenak eta hipertestuak.
- Ikasleen elkarreragina sustatzen duten eta hiztegia, esaldien konplexutasun-maila etab. zabaltzeko aukera ematen duten **ikasgelako estrategiak** abian jartzea.
- Eskolako testuen ulermena errazten duten **jarduera eta metodologia eraginkorrak**: solasaldi dialogikoak, irakurketa-babesa, *Bikoteka Irakurtzen*, “Irakurketa erraza”, “Motxila bidaiari”aren gisako estrategiak irakurketa garatu eta sustatzeko.
- Irakurriaren ulermena **arlo eta ikasgai guztietan**: ikasgelan erabiltzen diren testuen zailtasunak aztertzea (Ingurune, Gizarte, Natura, Matematika etab.) eta, ulermenari dagokionez, ikasleen aurrerapenaren **plangintza egitea**, hizkuntza-irakasleak eta arloetako irakasleak koordinatuz.
- **Teknika didaktikoak** erabiltzea testuaren edukiari buruzko hausnarketa sustatzeko (“*paragrafo honetako ideiak zer galderari erantzuten dio, ...*” etab.
- Ikasleekin garatu eta errubrikak erabiltzea.
- Ikasketa-**prozesua** ebaluatzea, irizpide komunak erabiliz eta ikasketa-prozesuari berari buruzko hausnarketa bultzatuz (autoebaluazioa, koebaluazioa,...).

IDATZIZKO ADIERAZPENA

- Komunikazio-helburu argiko idazketa proiektuak, aldi berean hizkuntza-edukiak lantzeko balio dutenak, garatzea.
- Prozesuaren eta azken produktuaren garrantzia kontuan hartzea.
- Modelatzea.
- Aldamioak ezartzea.
- Ideiak hitzetara ekartzea, idatzizko prozesuaren aurreko edota aldibereko urrats gisa.
- Testuaren edukiari buruzko hausnarketa sustatzeko **teknika didaktikoak** erabiltzea,
- Testuaren **koherentzia eta kohesioaren** kontrola.
- Testuen zuzenketari buruzko akordioak. Errubrikak, ...
- SIOP eredu.

AHOZKO ELKARRERAGINA

- Ahozko elkarreraginaren garrantzia azpimarratzea, hizkuntza eraikitzeke baliabide gisa, eta ingurune formaletan zein informaletan erabiltzea.
- **Talde-jarduerak** bultzatzea, ikasgela barruan eta kanpoan, eredu erakargarriak bilatzen saiatuz.
- Matematika-problemak, errutinak eta adimen-trebetasunak,...
- Talde interaktiboak, solasaldi dialogikoak, galdera/erantzun lehiaketak etab.

2.2.- AUKERATUTAKO JARDUERA ILDOA EDO ALDERDIA LANTZEKO PLANGINTZARAKO ORIENTABIDEAK:

Irizpide orokor gisa, komenigarria izango litzateke jarduera-ildoak eta garatu beharreko ekintzak **Hobekuntza Planean** sartzea, baldin eta ez badaude jadanik txertatuta, eta plan horren jarduera-eskema jarraitzea.

Adibide gisa:

	Garatu beharreko ekintzak	Atazak	Helburuak	Adierazlea	Arduradunak	Denboralizazioa	Baliabideak	Ebaluazioa
Ahozkoaren ulermena								
Idatzizkoaren ulermena	Ariketa trinkoak , testu bateko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzeko	Arloetan testuak aukeratzea, ikasgelan lan egiteko irizpide metodologikoak bateratzea...	Erabilitako azalpen-testuetan idatzizko ulermena hobetzea	Testuetako informazio garrantzitsua modu eraginkorrean bereiztea	Hizkuntzen eta Gizarte Zientzien mintegiak.	1. hiru hilekoa	Aukeratutako testuak, girotzeko kartelak ikasgeletan...	Ulermen-probak hiru hilekoa hastean eta amaitzean

2.3.- PRESTAKUNTZA PROPOSAMENA

Honako PRESTAKUNTZA ILDO hauek lantzeko jarduera zehatzak gauzatu beharko lirateke:

- **Hizkuntza-gaitasuna:** kontzientzia fonologikoa, ahozko eta idatzizko testuen ulermena, ekoizpena (plangintza, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna...), komunikazio-egoerak / testu-tipologia / genero-aniztasuna eta abar.
- **Metodologia** aktiboak eta partaidetzazkoak, bai elkarreragina sustatzeko estrategiak eta bai "ikasten ikasteko" estrategia pertsonalak (*ikasketa-teknikak*): proiektu bidezko ikaskuntza (diziplina anitzekoak...), *Bikoteka irakurtzen eta idazten*, solasaldiak, *maleta ibiltaria*, pentsamendu-errutinak eta -gaitasunak, **aldamioak**, **ereduak** eta abar.
- **Zeharkakotasuna:** arlo / ikasgaietatik ikasleen komunikazio-gaitasuna, ulermena eta testu-ekoizpena sustatzea, "hizkuntza eta edukiak" modu koordinatuan irakastea (SIOP...)

Hizkuntza anitzeko eta aniztasun kulturalerako gaitasuna: gaitasun soziolinguistikoa eta pragmatikoa garatzea, kontzientzia metalinguistikoa eta interlinguistikoa handiagorekin, ikasteko moduaren ezagutza hobetuz eta pertsona eta egoera berriekin erlazioak ezartzeko gaitasuna hobetuz...

3.- BESTE OHAR ETA IRADOKIZUN BATZUK.

- Berritzegune Nagusia, "Hobekuntza planak": Irakurketari buruzko orientazioak (Lehen / Bigarren Hezkuntza), Irakurmena ebaluatzeko jarduerak, oinarriko gaitasunak garatzeko arloetarako ekarpena (hizkuntza-komunikazioa)...: <http://nagusia.berritzeguneak.net/gaitasun/planes-de-mejora-es.php>
- ISEI-IVEI, "Hizkuntza-komunikazioko gaitasunen esparrua": http://ediagnostikoak.net/edweb/cas/materiales-informativos/ED11_marko_teorikoak/1_Comunicacion_linguistica_eus_y_cas.pdf

- <http://leer.es/>
 - HIPientzako dokumentuak (Bigarren Hezkuntza), Banakako Plana, Hizkuntzak: <https://sites.google.com/site/bihehipi/2-banakako-plana-hizkuntzak>
 - http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/plan_curricular/default.htm
 - Vila, I (71. orrialdetik aurrera): http://www.segundaslenguaseinmigracion.org/index.php?option=com_docman&task=doc_view&gid=215&Itemid=26
 - “Katalunian...” https://docs.google.com/file/d/0BwsZ6fDkxm_URndEQnl2bGVUMzA
 - Testuak... 61, “Ikasle etorkinen hizkuntza-integrazioa”: http://issuu.com/editorialgrao/docs/tx061_final_z_tot
 - http://www.educacion.navarra.es/portal/digitalAssets/46/46899_EP4_Correccion_de_textos_escritos.pdf
 - http://www.educacion.navarra.es/portal/digitalAssets/47/47151_ESO2_Caorreciion_de_textos_escritos.pdf
- Estrategia pedagogikoak eta proposamen metodologikoak: *bikoteka irakurtzen*, *SIOP* eredia (<https://sites.google.com/site/hizkuntzaetaedukiak>), eta abar.

4.- ERANSKINAK
